

Olagarro bat garajea

Igandean euria egin zuen.

Ni ez nintzen batere aspertu, edozer gauzarekin egiten baitut jolas. Geldi-geldi egon behar dudanean ere, bakar-bakarrik jolasten naiz; lurralde misteriotsuak imajinatzen ditut, eta animalia harrigarriak, eta era guztietako abenturak. Eta ez naiz aspertzen.

Nire aita, ordea, etxetik ez bada irteten, aspertu egiten da. Telebista ez du atsegin, irakurtzea ere ez, margotzea are gutxiago, jolastea ere ez... bada, jakina, aspertu egin behar. Xakean soilik gustatzen zaio jolastea, baina erraz irabazten digunez, horretan ere aspertu egiten da.

Igandean, esan zuen: «Asperturik nago, olagarro bat garaje batean baino aspertuago nago».

Eta nik diot: a zer txorakeria bota zuen aitak. Olagarro batek garajea ez du aspertzeko denborarik. Uraren faltaz hil egingo da.

Proba egingo dut.

Arrosa koloreko olagarro bat marraztu dut, beso luze-luzeekin. Burutik behera urez beteriko poltsa bat sartu diot, ito ez dadin. Garaje bat marraztu dut gero, eta bertan nire aitaren auto gorria, garbi-garbia eta distiratsua, hala edukitzen du-eta beti.

Ea zer gertatzen den orain.

Olagarroa izuturik dago. Eta pentsatzen du: «Ur osoa edaten dudanean, ezer gabe geldituko naiz, eta hil egingo naiz».

Nire aitaren autora doa; bere beso luzeek atea ireki, eseri, bolanteari heldu, kotxea martxan ipini eta...

Hor doa olagarroa abiada batean. Izeba Martinak pasatzen ikusi du, eta itolarria etorri zaio. Auzoko Erramunek ere ikusi du pasatzen, eta barrez lehertzen ari da; horren barrearen hotsak badu antzik haizete-egunetan ezkurrek lurrera erortzean ateratzen dutenarekin.

Olagarroak irratia piztu du, ozen; lau besoz gidatzen du, eta besteekin txalo egiten du irratiko kanta zaratzaren erritmoan. Hondartzarantz doa abiada osoan.

Semaforo bat gorri igaro du. Ertzainak atzetik abiatu zaizkio.

Olagarroa urduri jarri da; tintak ihes egin dio, eta eserlekua busti du.

Iritsi da hondartzara. Autotik jaitsi eta uretara doa lasterka. Salbatu egin da.

Egia esan, oraindik ez dakit nolatan asper daitekeen olagarro bat garaje batean.



JUAN KRUIZ IGERABIDE
Bota ura!

1 Bi konparazio daude testuan; bat ageri-agerikoa eta bestea ez hain agerikoa. Azpimarratu.


2 Ordenatu denboran, zenbaki bitartez, olagarroari gertatutakoak.

- ☐ Olagarroa hondartzara iritsi da.
- ☐ Olagarroak samaforoa gorri igaro du eta ertzainak segika hasi zaizkio.
- ☐ Izeba Martinak olagarroa pasatzen ikusi du.
- ☐ Olagarroak martxan jarri du autoa.
- ☐ Auzoko Erramun barrez lehertu da olagarroa ikusita.
- ☐ Olagarroak musika jarri du.

3 Aukeratu. Zertan dira desberdinak haurra eta haren aita?

- ☐ Haurrari ez zaio xakea gustatzen, eta aitari, bai.
- ☐ Aitari kalera irtetea gustatzen zaio, eta haurrari, ez.
- ☐ Haurra ez da aspertzen etxe barruan eta aita berehala aspertzen da.

4 Idatzi izen hauek zein bere irudiaren azpian: izkira, hegaluzea, lanperna eta igaraba.



5 Aukeratu hanean idatzita dauden hitzetatik, esaldi bakoitzeko hutsunea betetzeko.



Olagarroek _____ egiten du igerian osaba Karlosek.

Nire kamiseta zurea _____ askoz _____ da.

Txoriak _____ aske dabil Maria uda honetan.

Amonaren etxeko janaria gure etxekoa baino _____ da.

Mikelek ez du nik _____ kromo bere albumean.

6 Egin konparazioak hitz bikote hauekin.

auto/zaldi: _____

anaia/loro: _____

etxe/labe: _____

